



LIBURVAK

AGUSTIN P. U. ITURRIAGA. *Ipuiak*. Auspoa Liburutegia, 71-72. Tolosa, 1967.

Pascual Iturriaga-ren alegiak. Laugarren argitalpena dute alegiok, baina lehenengoak denak osorik. Aurretiko argitalpenak: Donostia, 1842; Tolosa, 1884; eta, Tolosa, 1932, urteetan.

Liburuaren hitzaurreak dionez, Iturriaga hirugarren deitura zuen; lehendabizikoa Pascual eta bigarrena Ugalde. Lehendik hala zirudín zalantza batzuek izan badira ere.

Hernaniar jator hau 1778-an jaio zan eta denbora haietan euskerazko eskolekin gehien arduratu zen gizona zan, Luis Astigarraga-rekin batean, nere *Euskeraren inguruan*-en laugarren kapituloan ongi bereizten dudán bezala. Alde honetatik gorezgarriak ziren denbora haretan bi jaun hoiek egin zituzten lanak. Eta, Iturriagak, eskoletarako irakurgaiak gertatzen, batez ere. «Auspoa»-k berak argitaratu zuen 1963-an bere beste lana, *Jolasak* («Auspoa», 25) eta oraingo *Ipuiak* osatzen dutena. Inungo ikastoletan falta behar ez litzazken irakurgaiak hauek.

Liburuaren zertzelada nagusiak ematen dira hitzaurrean.

Iturriaga dugu euskal literaturak maixuetariko bat, batez ere euskerazko eskoletara begira jartzen badugu. Bere Ipuiak, lehen, gaur eta betiko gaiak izango diran alegiak dira. Euskera aberats eta txukunean eginak gainera. Euskeran, alegigileekin ez gere izan hain hurri, baina danetan gorengo izango dugu, noski, Iturriaga, behar bada Oxobirekin batean (honen bilduma berezia «Gure Herria»-k

argitaratu zuen 1966-an *OXOBI-ren lan orhoitgarri zorbait*; ikus neronek EGAN-en egin nion aipamena, 1967-ko 1-6 zenbakiaren 112-gn. or.).

Iturriagaren alegiak Esopo-gandik Samaniego-ra arte, Fedro, La Fontaine eta Iriarte-gandik pasaturik, orotarik bilduak daude, eta batzuek bere buruz sortuak, beste haiek ere beren gisa egin zuten bezala. Euskal Herriko ipui zaharrenak ere hoién antzerako zenbait agertzen bazaigu ere, idatzitakorik zaharrenak induen *Pantxatantra* eta *Hitopadesa* dira.

Esopo-ren itzulpena euskeraz lehenengo eman zuena Bizenta A. Mogel izan zan, 1804-an *Ipui onak* argitaratzean. Honen hirugarren argitalpena «Auspoa» berak egin zuan 1963-an.

Alegilari hoiek aipatzean nahi ta nahiezkua zaigu, Bizenta Mogel, Iturriaga eta Oxobi-rekin batean, Artxu eta Goyetxe aipatu beharra. Artxuk, zuberotarrez argitara zituen 1848-an La Fontaine-ren alegiak, eta Goyetxek lapurteraz 1852-an.

Alegi eta ipui bertsoz eginak, meritu handikoak izango dira Pedro Ormaetxea Aldana-k *Lontzi Aba'ren Ipuintxuak* izenez Santiago de Chile-n 1947-an eta 1948-an argitaratutako bi liburuak, hori ez dut ukatzen, baina haurrentzat astunegiak egiten dira bizkaiera latz batean daudelako. Haurren mundua arina eta biguna da; molde gogorrez egindako euskera iruntzi ezinezkoa du. Eusebio Igarza-k «Oler-ti»-n argitaratuak askozaz txukunagoak dira.

Baina Gipuzkoa eta Nafarroako haurrentzat, guztietan hoberena, duda gabe, Iturriaga da. Behar bada Bizkaikoentzat ere bai, batez ere Gipuzkoaren mugakoentzat. Haurrentzat irakurgai bikainagorik nekez aurkitzen da.

Jan ederra bada ere, haurreri begira, dibuju on batzuekin ederragotua izango zan.

J. SAN MARTIN.

